

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakaria Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen (Frantzia) arteko harremanak sendotzearen alde agertu da

*Bi Nafarroen Mintegiaren zortzigarren edizioko itxiera-ekitaldian defendatu du, La Bastide Clairence-n egin dena*

Martes, 25 de septiembre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen (Frantzia) arteko harremanak sustatzearen alde agertu da. Bi lurralde horiek garai bateko Nafarroako Erreinukoak izan ziren. "Nafarroa bateko zein besteko herritarrok iragan bateratu bat partekatzen dugu, sustrai sozial eta kultural berberekin" eta "gaur egun, izandako aurrerapen handien ondoren, inoiz baino aukera handiagoak ditugu gure harreman instituzionalak eta sozialak finkatzeko", adierazi du Yolanda Barcinak.



Barcina Lehendakaria Bi Nafarroen Mintegian esku-hartzen. Mahaian, Catalán, Darritchon, Cabanne eta Maya.

Lehendakariak [adierazpen horiek egin ditu Bi Nafarroen Mintegiaren zortzigarren edizioko itxiera-ekitaldian](#). Ekitaldia Nafarroa Behereko La Bastide Clairence udalerrian egin da 1312an Nafarroako Luis I. eta Frantzia Hutin-go Luis X. erregeak udalerrri hori sortu zuten zazpigarren mendeurrena dela eta. Gertakari horrek, Yolanda Barcinak nabarmendu duenez, "gure historia bateratuaren aldi interesgarri bat gogoratzea ahalbidetzen digu".

Jardunaldia garai bateko Ultrapuertoko merindadeko ipar-ekialdeko udalerrri frantsesaren sorrerari buruzkoa izan da, helburu bikoitz batekin: alde batetik, Adour-eko bide nabigagarriaren bidez, itsasorako irteera bat bilatzea Gipuzkoako portuak galdu ondoren; bestalde, lurralde nafarraren defentsa hobetzea gobernu ingelesa Gasconia-n (Frantzia) berrezarri ondoren.

Gertakari hori mintegian bi hitzaldiren bidez aztertu da. Lehenengoa Jean Dufourcq-ek eman du eta "El puerto fluvial de La Bastide Clairence"-i buruz ("La Bastide Clairence-ren ibaiko portua") hitz egin du. Bigarren hitzaldia Nafarroako Unibertsitateko Erdi Aroko Historiako doktore Susana Herreros-ek eman du "Historia de las Tierras de Ultrapuertos" ("Ultrapuertosko Lurren Historia") hizpide hartuta.

Gainera, hirugarren hitzaldi bat eskaini da Nafarroako defentsako eraikuntzen inguruan. "Navarra, el reino de los 100 castillos" ("Nafarroa, 100 gazteluen erreinua") izeneko hitzaldia Nafarroako Errege Arxibo Nagusiko zuzendaria izan zen Juan José Martinena-k eman du. Erdi Aroan zeuden ehun gotorlekuetatik Foru Komunitatean egun kontserbatzen diren ehun bat gotorlekuri buruz hitz egin du.

Jardunaldia ekitaldi nagusi batekin amaitu da, eta bertan izan dira: Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina; Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko lehendakariorde Marie-Pierre Cabanne; Nafarroako Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán; Iruñeko alkate Enrique Maya; La Bastide Clairence-ko alkate Leopold Darritchon; eta Pantxoa Achiary-k Saint Palais-ko Nafarroako kulturgunearen proiektuaz hitz egin du. Haiekin batera, bi eskualdetako agintariek ere parte hartu dute, besteak beste, bigarren lehendakariorde eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin-ek.

Itxiera-ekitaldian, Barcina Lehendakariak Nafarroa Behereako udalerriko alkateari Luis I Hutinen erretratuaren kopia bat eman dio, Joaquín Espalter-ek XIX. mendean pintatutakoa. Koadroa VIII. eta XV. mendeen artean Nafarroan errege izan ziren 32 erregeen errege-erretratoen galeriakoa da, Nafarroako jauregiko Tronuaren Aretoko hormen zati altuena hartzen dutenak. Frantziako ordezkariak, berriz, foru-agintariei bertako artisauek beiran eta porzellanak egindako sorkuntzak oparitu dizkie.

Jardunaldiak amaituta, agintariek eta bertaratutakoek bisita gidatua egin dute udalerrri frantsesean

### **Bi Nafarroen Mintegia**

Gogora ekarri behar da Bi Nafarroen Mintegia 2005. urtetik urtean behin ospatzen den ekitaldia dela, urte batean Frantziako Nafarroan antolatuz eta hurrengoan Espainiako Nafarroan, bi lurraldeetako kultur erakundeen artean ezagutzak, esperientziak eta proiektuak partekatzeko xedearekin.

Nafarroako Gobernuak sustatutako ekitaldia da, Nafarroa Behereko udalerrri nagusiekin batera eta beste kultur erakunde batzuekin, Nafarroako Zaharreko Adiskideen Erakundearekin, esaterako. Erakunde horrek Nafarroa Behereko hiriburuan, Donibane Garazin, du egoitza.

Iaz, Uxuen ospatu zen ekitaldia eta aurreko urteetan Frantziako Donibane Garazin, Sain Palais-en eta Baigorri ospatu zen, bai eta Espainiako Erronkarin, Iruñean eta Luzaiden ere. Datorren urtean Erriberrin ospatuko da, gaur Barcina Lehendakariak proposatu duenaren arabera.

### **Galería de fotos**



Catalán, Barcina, Maya eta Darritchon La Bastide Clairence bisitatuz Bi Nafarroen Mintegiaren ondoren.



Barcina Lehendakaria Darritchon-i Luis I.aren koadroaren kopia bat ematen. Bi Nafarroen Mintegia.



Barcina Lehendakaria opari bat jasotzen Bi Nafarroen Mintegian.



Bi Nafarroen Mintegian Barcina Lehendakariak egindako agerraldia.



Catalán, Barcina, Darritchon eta Maya, Bi Nafarroen Mintegiaren ondoren.



Catalán, Darritchon Barcina eta Maya La Bastide Clairence bisitatuz. Bi Nafarroen Mintegia.